

## Elektrizitatearen eta beste zerbitzu batzuen hornidura-kontratua.

### Super Lasaitasun Plana: Baldintza Partikularrak



#### Baldintza ekonomikoak

% 15eko deskontua elektrizitate-kontsumoan (energia aktiboa) kontratuak irauten duen lehen 12 hilabeteetan.

Energia terminoaren gainean % 5eko deskontu gehigarria eduki ahal izango du lehenengo urtean, Etxebizitza Iberdrola Pack-a edo Etxebizitzarako Plus Elektrizitate-Babesa zerbitzuak kontratatzen badu eta aktibo edukitzekotan.

Prezioei 6/2022 Errege Lege Dekretuak ezarritako gizarte-bonua finantzatzeko mekanismoari lotutako arauzko kargua gehituko zaie (merkaturatzeko kostu finkoa: 0,019122 €/egun).

Potentzia- eta energia-terminoen prezioak egonkor mantenduko dira 120 hilabetez; hala ere, kontratua indarrean dagoen urte bakoitzeko urtarrilaren lehen eguneratuko dira, erregulatutako kontzeptuen, doikuntza-zerbitzuen eta KPlaren (\*) aldaketan arabera.

Une bakoitzean, beheranzko edo goranzko aldaketak aplikatuko dira sarbide-tarifa eta -ordainsarrietan, kanonetan eta Administrazioak kontratuak irauten duen bitartean aplikatzeko onar ditzakeen araututako balioetan, 3/2020 Zirkularra eta 148/2021 Errege Dekretua oinarri hartuta. Aurrekoa betez, Bezeroari hornitutako energia-unitateengatik Sistema Elektrikoaren Iraunkortasunerako Funts Nazionalerako (FNSSE) ekarpenak egiten direnean, dagozkion zeharkako kostuak jasanaraziko dira. Energia Efizientziaren Funts Nazionalerako ekarpenaren kostu arautua urtero erregularizatuko da urtarrilaren lehen urte bakoitzean FNEErako ekarpenak ezartzen dituen ministro-agindua argitaratu ondoren. Kostu arautu hori honela kalkulatu da: kostua erregularizatzen den urteko aurrezki-betebeharraren zenbateko ekonomiko baliokidearen zatidura, energia aurrezteko borondatezko ziurtagiririk gabe, eta obligazioaren urteko aldiaren aurreko bigarren urteko salmenten zatidura, ministro-aginduko datuak erabilita.

Kontratuaren prezioen gainean erregulatutako kontzeptuen aldaketak aplikatu ahal izateko, hornikuntza-sariaren sarbide-tarifari dagokion REE-ren indarreko hasierako profila erabiliko da; kontzeptuen aldaketak profil horri aplikatuko zaizkio kontratuaren prezioaren aldietan.

Unean-unean ez bada banatzailearengandik aldi jakin baterako orduen karga-kurba jasotzen, Espainiako Sare Elektrikoak (REE) argitaratutako batez besteko profilean oinarrituta egingo da faktura.

Fakturatu beharreko energia kalkulatzeko, energia kopurua eta epe jakin horretan egindako kontsumoa biderkatuko dira.

Potentziaren fakturazioa kalkulatzeko, ordu-aldi bakoitzean kontratatutako potentzia dagokion potentzia-terminoaren prezioarekin biderkatuko da. Fakturazio aldiaren egun kopuruaren arabera hainbanatuko da. Gehiegizko potentziak, hala badagokio, 3/2020 Zirkularreko 9.4 artikuluan xedatutakoaren arabera fakturatuko dira.

Energia erreaktiboaren fakturazioari, hala badagokio, 3/2020 Zirkularrean ezarritako energia horren fakturazio terminoaren prezioa aplikatuko zaio.

Plana kontratatuzeko, aktibatuta eduki behar da Faktura Elektronikorako harpidetza kontratuaren indarraldi osoan.

Kontratatutako plana ez bada zure beharretara behar bezala egokitzen, beste plan batera alda zaitezke nahi duzunean.

Kontratu hori dagokion banatzailearen bidez konpentsazio sinplifikatuko Autokontsumo modalitatera lotuta badago, Iberdrola Clientes-ek fakturazio-aldi bakoitzeko soberako energia konpentsatuko du REE-ren webgunean argitaratutako batez besteko KTBParen arabera, 244/2019 EDan ezarritakoari jarraituz. Baldintza Orokorren arabera Iberdrolaren jabetzako Eguzki-komunitate bateko kide diren Bezeroei ez zaie aurrekoa aplikatuko. Baldintza Orokorren arabera Iberdrolaren jabetzako Eguzki-komunitate bateko kide diren Bezeroei ez zaie aurrekoa aplikatuko.

Horrez gain, gogorarazten dizugu Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren (MLBN) Jatorri Bermearen ziurtagiriarekin kontratatu duzula energia. Horrek esan nahi du energia % 100 berriztagarriak diren eta CO<sub>2</sub>rik igortzen ez duten iturri ziurtatuetatik datorrela soilik.

Baldintza Orokorretako 4.1 klausulan ezarritakoaren arabera, adierazten da horniduraren prezioa Espainiako Sistema Elektrikoa Doitzeko Zerbitzuek (SSA) lotutako kostu bat kontuan hartuta finkatu dela, SSAen Erreferentzia Balioa 14,50 €/ MWh izanik.

SSAen balio erreala aldatuz gero, aldea automatikoki aldatu ahal izango da urtarrilaren 1etik aurrera horniduraren prezioan, eta hori ez da hartuko kontratuko baldintzen aldaketatzat, 8.1 Baldintza Orokorren arabera.

Ondorio horietarako, SSAetarako tolerantzia-bandatzat hartzen da, eta balio maximo batek eta balio minimo batek mugatzen dute; aurrerantzean, SSAen goiko erreferentzia-balioa eta beheko erreferentzia-balioa deituko zaie, hurrenez hurren, balio hauekin:

SSAen beheko erreferentzia-balioa: 11,00 €/MWh.

SSAen goiko erreferentzia-balioa: 18,00 €/MWh.

Urtero, urtarrilaren leian, SSAen balio erreala kalkulatu da, hau da, sistemaren operadoreak data horretan webgunean argitaratutako azken urtearen ordukako prezioen (edo, hala badagokio, ordu-laurdenkako prezioen) batezbesteko aritmetikoa (€/MWh-tan): <https://www.esios.ree.es/es/descargas>. Kasu orokor gisa, bi urte lehenagoko abendutik aurreko urteko azarora bitarteko hiletako SSAen balioak hartuko dira, C2\_Precio Final fitxategian argitaratutakoak, PFMHORAS\_LIB\_FECHAS taularen barruan, Restricciones eta Procesos OS osagaien batura gisa, edo, bestela, hura ordeztzen duen fitxategian argitaratutakoak.

SSAen balio erreala SSAen goiko erreferentzia-balioa baino handiagoa izan bada, IBERCLIK gorantz eguneratuko du horniduraren prezioa, balio horien arteko aldearen zenbatekoko, formula honen arabera:

Horniduraren prezioa eguneratzea = (SSAen balio erreala - Goiko erreferentzia-balioa) x (1 + Galerak)

SSAen balio erreala SSAen goiko erreferentzia-balioa baino handiagoa izan bada, IBERCLIK beherantz eguneratuko du horniduraren prezioa, balio horien arteko aldearen zenbatekoko, formula honen arabera:

Horniduraren prezioa eguneratzea = (SSAen balio erreala - Goiko erreferentzia-balioa) x (1 + Galerak)

Hemen, galerak galeren balioari dagozkio, ehunekotan adierazita, SSAren balio erreala kalkulatzeko aldi berari dagozkionak, CNMCren 3/2020 Zirkularraren 11. artikuluan ezarritako koefizienteen eta haiek eguneratzen dituzten ebazpenen arabera.

Kostu elkartu hori aldatzeagatik horniduraren prezioa eguneratzen bada, SSAen goiko erreferentzia-balioa eta SSAen beheko erreferentzia-balioa automatikoki eguneratuko dira. Horrela, bi balioak zenbateko berean igo edo jaitsiko dira, tolerantzia-banda berri bat sortuz, formula honen arabera:

- Horniduraren prezioa gorantz eguneratzen bada: Beheko eta goiko erreferentzia-balioa handitzea = (SSAen balio erreala - Goiko erreferentzia-balioa).
- Horniduraren prezioa beherantz eguneratzen bada: Beheko eta goiko erreferentzia-balioa txikitzea = (SSAen balio erreala - Beheko erreferentzia-balioa).

Sistemaren operadoreari lotuta dauden edo sistemaren operazioarako erabilitako edozein mekanismoren ondoriozkoak diren kontzeptu eta/edo kostu berriak agertzen badira, edo klausula honetan aintzat hartu beharreko aldaketak, hemen aipatutakoak, gertatzen badira, bezeroari fakturan jakinaraziko zaizkio.

SSAk kontzeptu araututzat joko balira, arautzaileak une bakoitzean onartzen dituen balioak aplikatuko liraterke, eta klausula hau indarrrik gabe gera liteke hurrengo eguneratzeetarako.



## Kontratuaren iraupena

Kontratu honen iraupena 12 hilabetekoa izango da, hornikuntza hasten den egunetik aurrera zenbatuta.

Hornikuntzaren hasierako data kontratu hau onartzearen ostekoa izango da eta honako hauek baldintzatuko dute: Enpresa Banatzailearekin sarbide-kontratua sinatu izana, energiaren eskuragarritasuna, bai eta instalazioen gaineko ekintzak ere, halakorik behar balitz. Horiek guztiak ahalbidetuta, hornikuntzaren aurreneko eguna lehen fakturan adierazitako irakurketa-epairen lehen eguna izango da.

Kontratua urtetik urtera luzatu ahal izango da Baldintza orokorretan jasotakoaren arabera.

10kW baino gehiagoko potentzia kontratatuta duten horniduretan, Kontratua 12 hilabete baino lehen amaituz gero, edozein alde atzera egin izanagatik, atzera egin duen alderdiak besteari kalte-ordaina ordaindu beharko dizkio, hain zuzen, hornitzeke dagoen energia estimatuagatik Kontratuaren prezioaren % 5eko zenbatekoa; gainera, Bezeroak kalte-ordainak erreklamatu ahalko ditu, betiere IBERDROLAK atzera egiteagatik zuzenean jasandako kalteak frogatzen baditu. Dagoeneko lehenengo urtea igaro denean atzera egiten badu, ez da kalte-ordainik aplikatuko, atzera egiten duen alderdiak besteari erabakia jakinarazten ez dionean salbu, gutxienez hornidura eten baino 15 eguneko epean.



## Zergak

Aurretik Erreferentziatzko Merkaturatzaile batekin KTBP baduzu eta ez baduzu abonua soziala jasotzen, jakinarazten dizugu berau izateko baldintza guztiak betetzen badituzu kontratua berria sinatzeak hura aplikatzea galaraziko duela.

Argindarraren kontagailua alokatzearen hileroko prezioa Energia eta Turismo Ministerioak eta Agenda Digitalak dagokion sarbide-tarifarentzat ezartzen duena izango da. Enpresa banatzaileak kobratuko du, BEZa(\*\*) barne, eta bezeroari jaulkiten zaizkion faktura guztietan jasota utziko da. Bezeroak edonoiz kontsulta ditzake unean indarrean dauden prezioak hemen: [www.iberdrola.es/](http://www.iberdrola.es/)

(\*) KPI: Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratzen emandako Kontsumoko Prezioen Indize orokorraren aldaketa ezarri aurreko urteko azarotik azarora bitarteko epeari dagokion balio erreala metatua.

(\*\*) Une bakoitzean aplikatu beharreko zergak, fakturretan banakatuko direnak, honako hauek izango dira: elektrizitate-hornidurarako Zerga Elektrikoa (% 5,11269632% edo 0,5 €/MWh-ko edo 1 €/MWh-ko gutxieneko zenbatekoa edo legez dagokionaren arabera) eta gas-hornidurarako hidrokarburoen zerga (0,00234€/kWh edo legez dagokionaren arabera). Horrez gain, BEZa aplikatzen du Penintsulan eta Balear Uharteetan (% 21 edo % 10 edo dagokiona), Kanarietan IGICa aplikatzen da (% 0, % 3 edo % 7 edo dagokiona) eta Ceuta eta Melillan IPSIa (% 1 edo % 4 edo dagokiona). Aseguruetan sartzen dira zergak (PGZ), Aseguruen Konpentsazio Partzuergoaren errekarua eta bitartekaritza-komisioak, BEZari lotuta ez daudenak.